


Juanitok ardiak kontatu ohi ditu
lokartu aurretik.

Baina txerri-talde honetako txerriek
haiek konta ditzan nahi dute.

Lortuko ote dute?



Artaldearen ondoren... hemen da *Txerri-taldea!*
Imajinatzen ardiak beharrean txerriak kontatzea?



Bilduma berean:
Artaldea

ISBN: 978-84-10406-65-0 www.nubeocho.com




TXERRI-TALDEA



Margarita del Mazo


Guridi



nubeOCHO

TXERRI-TALDEA

Margarita del Mazo Guridi



*G. jaunari, ameslari errebelde bezain inspiratzaileari.
Baita Juanitori ere, istorio honen hazia erein zuenari.*

Margarita del Mazo

TXERRI-TALDEA

Margarita del Mazo
Guridi



Txerri-Taldea

Somos8 Bilduma

© testuarena: Margarita del Mazo, 2025

© irudiena: Guridi, 2025

© argitalpenarena: NubeOcho, 2025

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *La piara*

Jatorrizko ideia: Margarita del Mazo eta Juan Amavisca Abu Salman



Lehen argitalpena: Apirila, 2025

ISBN: 978-84-10406-65-0

Gordailu Legala: M-4844-2025


Eslovenian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.



Txerriok animalia zoriontsuak gara.
Horregatik, ez dago txerri-talde bat baino
animalia talde zoriontsuagorik.

Baina txerriok ere baditugu ezinegon eta nahiak.
Eta galderak egiten dizkiogu gure buruari.



Bada aspalditik loa galarazten digun gai bat...
Hurrek gauero-gauero ardiak kontatzen dituzte
lo hartu aurretik. Juanitok, esaterako, artaldeari
deitzen dio lo hartu ezin duenean.

Zergatik ez dio inoiz gure txerri-taldeari deitzen?



Egun batez, ardiei gaia ateratzea erabaki nuen.

—Urteak dira artaldeak Juanitori lokartzen laguntzen diola. Gauren batean guk proba egin genezake?

—Hori ardion lana da. Txerriek ezin duzue lan hori burutu.



Ardi haren irainak erantzun bat zirudien.

Bat-batean, txerri-talde osoa bildu nuen gertatutakoa kontatzeko.

—Lagunok, honekin amaitu behar dugu!
Juanitori erakutsiko diogu ardi horiek baino hobeak garela. Guri esker, hobeto eta luzaroago egingo du lo.





—Ados al gaude?


—**Baaaaai!!** —oihu egin zuen txerri-taldeak.

—Ikusiko dute zenbat balio dugun txerriok!


—**Baaaaai!!!**

—Juanitok lokartzerakoan
ardiak kontatu nahi ez izatea lortuko dugu.

—**Baaaaai!!!**



Zirraratuta geunden. Apatxak
martxan jarri genituen. Lo zeuden
artean ardiei ilea moztea erabaki genuen,
haien artilearekin mozorrotzeko.



Eragozpen txiki bat zegoen, ordea.
Batzuek hain eder ikusten zuten euren burua,
ezen plana ahaztu baitzuten.

Horrela igaro zuten gaua.

